



Eskolako Agenda 21

Juan Orobiogoitia BHI



Ebaluazioa. Ekintzen garapena, balorazioa eta helburuen lorpen maila			10.1
Fasea: Ebaluazioa	Data: 2015-06-08	Arduraduna: Ingurumen Batzordea	

Ekintzen balorazioa:

	Hobekuntza-helburuak	Ekintzak	Garapena eta balorazioa
CURRICULUM	Gaiarekin loturiko materiala mintegiei luzatu	Materialak bilatzea eta jarduerak eskaini mintegietan	Material ezberdinak eskaini zaizkie irakasleei mintegi eta maila ezberdinetan lantzeko. Batzuk landu dira eta besteak hurrengo urtean erabiltzeko utzi dira.
		Kontsumo tailerrak	Tailer hauek burutu dira bi egunean zehar DBH 1. Mailako ikasleekin.
		Ortua	Ortua landu da, sasoi bakoitzean lan ezberdinak eginez. Kurtso hasieran iaz jarritako uzta ezberdinak jaso ditugu eta eurekin baserrietako lan ezberdinak burutu: piperrak kordatu, indabak urkuldu, kipulak txortatu... Sasoi bakoitzeko ortuari batzuk jarri ditugu eurekin lan ezberdinak eginez: erein, landatu, ureztatu, batu, jorratu... Bildutakoa txandaka eraman dute etxera eta baita ere sukaldaritza tailerrean erabili dute. Ekintza hau ingurumen tailerreko ikasleekin taldeka eta txandakatuz burutu da.
		Konposta	Konposta egiten jarraitu dugu eta aurten lehen aldiz egindakoa ortura eraman dugu.
		Sukaldaritza tailerra.	Tailer hau egin dute Ingurumen Tailerreko ikasleek ortuko produktuak erabiliz eta jasangarritasunaren aspektua landuz.
		Gatazkarik gabeko teknologia tailerra.	Tailer hau burutu dute EA21eko ordezkariak eta egindakoaren azalpenak eta bideoa jorratu da gela guztietan.
		Ibaialde eta Azterkosta	Programa hauetan parte hartu dugu Ingurumen tailerreko ikasleekin.
		Ibaialde erakusketa.	Erakusketa hau izan dugu aurten ikastetxean eta gela guztiak pasatu dira saio batean panelak behatu eta txosten bat osatzen.
		Irteerak ingurune naturaletara	Irteerak egin ditugu maila guztietako ikasleekin ingurune natural ezberdinetako programak garatuz: Sukarrietako egonaldia, Peñas Negras, Urkiola, Zumaia flysha, Barrikako azterketa geologikoa.
	Fenologia: horitik berdera	Programa berri honetan lehen urratsak eman ditugu DC taldeko ikasleekin. Landareen behaketak egin ditugu sasoi ezberdinetan klimaren eragina aztertzeko.	

KUDEAKETA	<p>Hamarretakoen bildukinen berrerabilpena bultzatu</p> <p>Materialen berrerabilpena bultzatu</p>	<p>Boc´roll</p> <p>Aholkuak luzatu materialen berrerabilpenari buruz.</p>	<p>Udalari Boc´ Roll-en eskaria egin da ikasleek idatzitako gutun baten bidez.</p> <p>Bildukinen berrerabilpenak bultzatzeko aholkuak luzatu zaizkie gurasoei gutun baten bidez.</p> <p>Udalatik jasotako Boc´ Roll-ak banatu dira ikasle eta irakasleen artean. Euren erabilera bultzatzeko kartelak jarri dira ikastetxean eta web orrian. Noizbehinka kontrol bat egin da erabiltzaileak kontabilizatzeko, eta maila baxuetan gehiago erabiltzen dela behatu da.</p> <p>Tutoretzetan ikasle ordezkariak materialen kontsumoaren murrizketa, berrerabilpena eta birziklapenari buruzko aholkuak zabaldu dituzte.</p> <p>Paperaren kontsumoan jarraibide egokiak gogoratu zaizkie irakasleei emailez.</p> <p>Geletan jartzeko egutegien orriak berrerabilitako paperarekin egin dira eta ez dira plastifikatu.</p> <p>Mobil zaharren bilketa egin da ALBOANen kanpainarekin lotuta.</p> <p>Birziklapen tailerra egin dute EA21eko ordezkariak eta horren berri eman dute euren geletan.</p>
	<p>Hondakinen sailkapena hobetu ikastetxean</p>	<p>Ontziak hornitu eta jarraipena egin.</p>	<p>Falta ziren ontziak erosi dira. Hondakin organikoentzat patioan jartzeko ontzia gehitu dugu.</p> <p>Ontzietan kartelak jarri dira.</p> <p>Noizbehinka ontzien edukiei argazkiak atera zaizkie eta txoko berdean eta pasilloetan publikatu dira. Ez da ikusten hobekuntza handirik hondakinen sailkapenean.</p>

PARTAIDETZA	Gurasoekin harremanetarako Einikaren erabilera indartu	Einikaren azterketa	Einikaren aukeren informazioa jaso du ikastetxeko irakasle talde batek. Ikastetxean erabiltzeko aukerak eta bideragarritasuna aztertu du talde horrek. Saiakera batzuk egin dira gurasoei informazioa bide horretatik bidaltzeko, baina hainbat oztopo izan ditugu lan horretarako.
	Langileen konpromisoak areagotu eta zehaztu	Langileekin bilerak	Kontserje, jantokiko eta garbitasuneko langileekin bilerak egin dira euren konpromisoak zehazteko asmoz.
		IRAES sareak proposatutako lanak	Sarean proposatu diren lan guztiak burutu dira eta blogean eskegitzeko bidaliak izan dira. Ikastetxeko blogean ere argitaratu dira.
		ESenRED sareko lanak	Estatu mailako sare honek proposatutako lan bat burutu dugu ekainaren 5eko ekintza bateratu bat osatzeko.
		CONFINT.	Eskolako Confint-a egin dute DBH 3. Mailako ikasleek. Euskadiko Confintean parte hartu dute 4 ordezkari eta ekolider batek. Bartzelonan burutu den Estatuko Confint-ean parte hartu dute 3 ordezkari, eta bertan ikastetxeko ikasle bat aukeratu izan zen Europako Confint-era joateko. Bruselasen egin den Europako Confint-ean parte hartu du ordezkari horrek . Konferentzia hauek oso motibagarriak dira ikasleentzat eta balorazio oso ona jasotzen dute.
		Sasoiko barazkien otzarak	Aurten ere barazkien otzaren eskaintza luzatu zaie irakasle eta langileei eta 4k jasotzen dituzte sasoiko barazkiz hornitutako otzara horiek.
		Liburu eta disko gogor ibiltariak	Aurten ere ekintza honekin jarraitu dugu. Liburu ibiltariak 1. Mailako familietatik pasatu dira gurasoen ekarpenak jasotzeko eta disko gogorrak 3. Mailako eta batxilergoko ikasle berrien familietatik. Ekarpenei kopurua jaitsi da, baina jasotakoak oso interesgarriak izan dira eta sortutako bilduma web orrian eskegiko da.
Otxandioko "Hontza extrem" ekintza	EA21eko ordezkariak, Ingurumen tailerreko ikasleek eta Confint prozesuetan parte hartu duten ordezkariak egindako lana saritzeko ekintza hau burutu dugu. Oso interesgarria eta ondo baloratua izan da irteera hau.		
UDALA		Udal foroa	Eskolen arteko foroa eta udal foroa burutu dituzte EA21eko ordezkariak. Foro horretan Bartzelonan, estatuko Confint-ean egon zen kide batek eman zuen han egindakoari buruzko informazioa.

Helburuen lorpen maila:

	Hobekuntza-helburuak	Adierazleak	Ebaluazioa (adierazleen emaitzak)
CURRICULUM	Gaiarekin loturiko materiala mintegiei luzatu	Eskainitako materialak	Ingeles, Alternatiba, Erlijio eta Hiritartasuneko irakasleei emandako materiala
KUDEAKETA	Hamarretakoen bildukinen berrerabilpena bultzatu Materialen berrerabilpena bultzatu Hondakinen sailkapena hobetu ikastetxean	Luzatutako proposamenak Behaketa plantilaren emaitzak Argazkien behaketa	Bildukin berrerabilpen proposamenak luzatu zaizkie gurasoei gutun baten bidez eta baita ere web orrian aholkuak jarrita. Ikasleei zuzenduta tutoretza saioak, txoko berdea eta pasilloetako panelak erabili dira. Beraz, helburu hau bete da. Boc'n Rolla Udaletik lortu dugu eta bere erabilera bultzatzen ari gara. Berrerabilpen aholkuak luzatu zaizkie guraso, ikasle eta irakasleei, beraz, helburu hau lortu da. Aldiro atera diren argazkiak eta baita ere ontziak behatu ondoren, ez da sailkapenean hobekuntzarik nabaritu.
PARTAIDETZA	Gurasoekin harremanetarako Einikaren erabilera indartu Langileen konpromisoak areagotu eta zehaztu	Einikaren bidez bidalitako mezu kopurua Bilerako akta	Baliabide honen erabilgarritasuna aztertzen aritu gara, eta ikasturte bukaerako mezua bidali dugu bere bitartez. Langile talde ezberdinekin bilera bana egin da, eta bertan idatzita geratu dira hartutako konpromisoak